BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA SAILA

4538

EBAZPENA, 2011ko uztailaren 18koa, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearena, kultura-arloetako jaialdi, ziklo, lehiaketa, sariketa eta kultura-ekintza bereziak antolatzeko diru-laguntzak emateko araubidea ezarri, eta 2011rako deialdia egiten duen Kulturako sailburuaren 2011ko ekainaren 22ko Aginduan aurreikusten den balioespen-batzordearen osaeraren berri ematen duena.

AURREKARIAK

1.– 2011ko uztailaren 15eko EHAAn (135. zk.) 2011ko ekainaren 22ko Agindua argitaratu da, Kulturako sailburuarena, kultura-arloetako jaialdi, ziklo, lehiaketa, sariketa eta kultura-ekintza bereziak antolatzeko diru-laguntzak emateko araubidea ezarri, eta 2011rako deialdia egiten duena.

2.– Agindu horren 9.2 artikuluak balioespen-batzordearen osaera ezartzen du, eta osaera hori Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordeak EHAAn argitara emango duen ebazpen baten bidez jakinaraziko dela.

Horiek horrela, honako hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Kulturako sailburuaren 2011ko ekainaren 22ko Aginduaren 9. artikuluan aurreikusten eta arautzen den balioespen-batzordearen osaera argitara ematea. Balioespen-batzordeak kide hauek izango ditu:

Batzordeburua: Mikel Toral López, Kultura Sustatzeko zuzendaria.

Batzordekideak:

Imanol Arana Ariz, Kultura Sustatzeko Zuzendaritzako kultura-plangintzako teknikaria.

María Jesús Cambra Contín, Kultura Sustatzeko Zuzendaritzako kultura-plangintzako teknikaria.

Marta Merino Ortiz de Landaluce, Kultura Sustatzeko Zuzendaritzako kultura-plangintzako teknikaria.

Idazkaria: Arturo García Fiel, Kultura Sustatzeko Zuzendaritzako kultura-plangintzako arduraduna.

Bigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea, jendeak horren berri izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko uztailaren 18a.

Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordea,
ANTONIO RIVERA BLANCO.